

2025EKO AZAROAREN 25EKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2025-11-25.
Hasiara ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Inés R. Matxiarena Aldalur
Patxi Castillo Graciarena
José Esteban Aguirre Zubieta
Adela Arlegi Goienetxe
Francisco Larrechea Lazcano
Ángel Pombar Sainz

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurreondo

JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

María Guadalupe Mendigutxia Etxebeste Maider Iantzi Goienetxe

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO 2 BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotzirenen batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera bidali zirenen aurreko 2 bilkuretako aktei (2025-10-21 eta 2025-11-12). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu dira aktak.

2. 2026. URTERAKO AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONESPENA.

Kontu-hartzaileak aurrekontuaren laburpena azaldu du, gastuen zein diru-sarreraren adierazpena eginez, eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen arau fiskalak aipatu ditu.

Alkateak informazioa osatu du 2026. urtean gauzatu nahi diren erronka nagusiak azalduz.

Hartu beharreko maileguari eta kreditu-gerakinari buruz eztabaidatu da.

Jarraian, idazkariak azaldu du aurrekontuaren espedienteak jarraitzen duen prozedura eta kontu-hartzailea bileratik atera da.

DATU PERTSONALAK DISOZIATU DIRA

Botoa eman dute, eta honako hau izan da emaitza:

- Alde, 8 boto (EH Bilduko 7 zinegotzi eta José Antonio Oyarzabal, Herrirakokoa).

- Kontra, boto 1 (Andoni Andueza, Herrirakokoa). Edukia aztertzeko astirik ez duela izan adierazi du.

Ondorioz, honako erabaki hau hartu da **gehiengo osoz**:

Ikusirik 2026. ekitaldiko aurrekontu orokorraren proiektua, non Udalaren aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolaren Patronatuarena sartzan baitira, baita Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresa publikoaren gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak ere.

Kontu-hartzailearen ahozko txostena eta idazkariaren txosten juridikoa aztertuta, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201. eta 202. artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako hau ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2026. ekitaldiko aurrekontu orokorrari eta hura gauzatzeko oinarriei. Honako hau da laburpena:

Udala.

DIRUSARRERAK:

Kapitulua	Izenburua	Zenbatekoa eurotan
I	Zuzeneko zergak	1.498.956,41
II	Zeharkako zergak	110.000,00
III	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	439.094,69
IV	Transferentzia arruntak	2.203.498,79
V	Ondare-sarrerak eta aprobetxamenduak	33.151,65
VII	Kapital-transferentziak	1.302.439,01
IX	Pasibo finantzarioak	1.051.191,05
	Dirusarrerak, guztira	6.638.331,60

GASTUAK:

Kapitulua	Izenburua	Zenbatekoa eurotan
I	Langile-gastuak	1.469.549,50
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	1.464.793,55
III	Finantza-gastuak	30.940,50
IV	Transferentzia arruntak	914.053,68
VI	Inbertsio errealak	2.697.553,53
VII	Kapital-transferentziak	30.200,00
IX	Finantza-pasiboak	31.240,84
	Gastuak, guztira	6.638.331,60

Musika Eskolaren Patronatua.

DIRUSARRERAK:

Kapitulua	Izenburua	Zenbatekoa eurotan
III	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	91.000,00
IV	Transferentzia arruntak	271.065,02
V	Ondare-sarrerak eta aprobetxamenduak	5,00
VII	Kapital-transferentziak	7.100,00
	Dirusarrerak, guztira	369.170,02

GASTUAK:

Kapitulua	Izenburua	Zenbatekoa eurotan
I	Langile-gastuak	332.440,02
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	29.570,00
III	Finantza-gastuak	60,00
VI	Inbertsio errealak	7.100,00
	Gastuak, guztira	369.170,02

2. Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, aldeztu aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-oholean iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak egin ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, aurrekontua behin betiko onetsizat hartuko dela.

3. UDALEKO ETA "ISIDORO FAGOAGA" UDAL MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOKO LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA 2026. URTERAKO. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik 2026. urterako plantilla organikoaren espedientea, Udaleko eta "Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoko langileek barnean hartzen dituen. Bertan honako hau jasotzen da:

- Plantillen proposamena, lanpostuen zerrendekin eta langile finkoen eta lanpostu hutsak betetzen ari diren aldi baterako langileen zerrendekin. Ekitaldi berrirako proposatutako aldaketen arrazoiak eragindako langileen soldata-baldintzak hobetzea da.

- Idazkariaren txosten juridikoa eta kontu-hartzailearen txostena.

Kontuan izanik aplikagarria den araubide hau: Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201. eta 202. artikulua; 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen (Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langilearen Estatutuaren Testu Birbildua) 19. eta 20. artikulua; Euskarari buruzko 18/1986 Foru legearen 15.2 artikulua; 103/2017 Foru Dekretuaren 22. eta 28. artikulua (euskararen erabilera DATU PERTSONALAK DISOZIATU DIRA

arautzen du Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan),

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea Udaleko eta "Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoko langileen 2026rako plantilla organikoari, espedientean jasotako edukiarekin. Euskara jakitea nahitaezkoa izanen da organismo autonomo eta Udaleko edozein lanpostu eskuratzeko, funtzionarioenak zein kontratatuenak, finkoak edo aldi batekoak; lanpostu guztiei esleituko zaie Bortzirietako Euskara Mankomunitateak plantilla organikoetako lanpostuen hizkuntza eskakizunei buruz egindako txostena aplikatzearen ondoriozko euskara maila.

2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, plantilla behin betiko onetsizat hartuko dela eta haren laburpena argitaratuko dela.

4. UDAL-ZERGEN ZERGA-TASAK 2026KO EKITALDIRAKO.

Kontu-hartzailearen txostenetik ondorioztatzen da, legezko muga barruan, tartea dagoela %2 igotzeko udal zerga batzuen tasa.

Gero, espedienteak jarraitu beharreko prozedurari buruzko aipamena egin du idazkariak.

Botoa eman dute, eta honako hau izan da emaitza:

- Alde, 8 boto (EH Bilduko 7 zinegotzi eta José Antonio Oyarzabal, Herrirakokoa).
- Kontra, boto 1 (Andoni Andueza, Herrirakokoa).

Ondorioz, honako erabaki hau hartu da **gehiengo osoz**:

Kontu-hartzaileak eta idazkaritzak egindako txostenak ikusirik, eta kontuan izanik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikularen arabera, udal zergen zerga-tasen aldaketak onetsi behar direla ondorioak izanen dituzten urtea hasi baino lehen, ERABAKI DA:

1. Zerga-tasa hauek onestea 2026rako:

- Lurraldeko kontribuzioa, %0,2692.
- Izaera urbanoko terrenoen balio gehikuntzaren gaineko zerga, %20,21. Gehikuntza errearen zenbatekoa finkatzeko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluan agertzen diren gehieneko koefizienteak aplikatuko dira.
- Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, %5ean mantentzen da.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 1,40 indizea mantentzen da.

2. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan.

5. ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEA: 2026RAKO TARIFAK. HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak puntua aurkeztu eta gero, botoa eman dute, eta honako hau izan da emaitza:

- Alde, 8 boto (EH Bilduko 7 zinegotzi eta José Antonio Oyarzabal, Herrirakokoa).
- Kontra, boto 1 (Andoni Andueza, Herrirakokoa).

Ondorioz, honako erabaki hau hartu da **gehiengo osoz**:

Ikusirik ordenantza fiskal hauek 2026rako aldatzeko espedienteak:

- Hirigintzako izapideak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Dokumentuak izapidetu eta emateagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzien tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Ezkontza zibilak egiteko zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Eremu publikoko eta herrilurretako lurzoruren, hegalaren eta lurpearen aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Ur-hornidura eta saneamenduagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Musika Eskolaren zerbitzua emateagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Ingurumen-babesaren arloan baimenak emateagatiko eta kontrol-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.
- Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza.

Kontuan hartuz:

- Idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak eman dituztela eta ohartarazi dutela Musika Eskolako tarifen sistema ez datorrela bat Nafarroako Toki Administrazio 6/1990 Foru Legearen 189. artikuluan eta Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduko —1955eko ekainaren 17ko Dekretua— 150. artikuluan xedatutakoarekin.

- Ez direla egin Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikuluko izapideak, aurretiazko kontsulta publikoa eta entzunaldia, arau horren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoan eta Auzitegi Gorenaren 2023ko urtarrilaren 31ko epaian oinarrituta.

Kontuan izanik Nafarroako Toki Administrazio 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikulua xedatzen dutena, ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea aipatutako ordenantza fiskalen aldaketari: 2026rako tarifak.
2. Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 eguneko epealdian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan iragarri ostean, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.
3. Ohartaraztea hasierako onspen hau behin betikoan bilakatuko dela, baldin eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkezten ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da gertaera hori, behin betiko testuarekin batera, eta argitaratze datan hartuko du indarra.

DATU PERTSONALAK DISOZIATU DIRA

4. Nafarroako Toki Erakundeen Ordenantza Fiskalen Erregistrora bidaltzea aldaketa hauek, behin betiko onespenua gauzatu ondoren.

6. HIRIGINTZA ARLOAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO BERAKO UDALA ETA NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA SA-REN ARTEKO ATXIKIPEN HITZARMENAREN ADDENDA ONESTEA.

Aurrekariak:

- 2022ko apirilaren 29an sinatu zen Berako Udalaren eta Nafarroa de Suelo y Vivienda Saren (NASUVINSA) arteko atxikipen-hitzarmena, hirigintza arloko laguntza tekniko emateko.

- Udal arkitektoa duela gutxi plantillan sartu da eta NASUVINSAk ematen zituen zerbitzuen zati bat bere gain hartu du, eta horrek sinatutako hitzarmenaren baldintzak birplantatzera behartzen du.

Hitzarmenaren Addendaren edukia ikusita,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hirigintzaren arloan laguntza tekniko emateko Berako Udalaren eta NASUVINSAREN arteko atxikipen-hitzarmenaren Addendaren testua onartzea, eta alkateari ahalmena ematea aipatutako dokumentua sinatzeko.

2. Erabaki hau jakinaraztea NASUVINSARI.

7. UDALEN ARTEKO KUDEAKETA HITZARMENA, NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOETAN KULTUR TEKNIKARIAK KONTRATATZEKO ZERRENDA SORTZEKO DEIALDIARI BURUZKOA.

Aztertu da Nafarroako toki administrazioetako kultura teknikariak kontratatzeke zerrenda bat sortzeko deialdia kudeatzeko udal arteko hitzarmenaren proposamena.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan eta 47-49 artikuluen arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hitzarmena onartzea Berako Udalak Etxarri Aranazko Udalari kudeaketa-esleipena bideratzeko, kultura teknikariaren eginkizunak betetzeko izangaien deialdia egiteko, hautaprobak egiteko eta zerrenda kudeatzeko xede duena, Berako Udalak kontratatu ditzen diren beharrei erantzuteko.

2. Berako Udaleko alkateari ahalmena ematea haren izenean eta ordezkartzan aipatutako hitzarmena sina dezan.

3. Erabaki hau jakinaraztea Etxarri Aranazko Udalari.

4. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

8. HERRI-LURREN APROBETXAMENDUAK IZENEZ ALDATZEKO ESKAERA: ERLAUNTZAK/4 ETA ERLAUNTZAK/5.

Ikusirik:

- XXXk eskatu zuela bere izenean jartzeko XXXri esleitutako herri-lurren aprobetxamendu hauek: ERLAUNTZAK/4 eta ERLAUNTZAK/5.

- Udalaren osoko bilkurak 2022ko urriaren 19an egindako bileran, behin betiko onartu zuela Berako herri-lurren aprobetxamenduen onuradunen zerrenda, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. XXX jauna honako aprobetxamendu hauen onuradun gisa agertzen da:

			KOKAPENA	
ZENBAKIA	MOTA	M2 AZAL.	POL.	PARTZ.
ERLAUNTZAK/4	Erlauntzak	46,64	15	122
ERLAUNTZAK/5	Erlauntzak	41,09	16	24

- 12 urteko aprobetxamendu-epaia 2032ko abenduaren 31n bukatuko dela.

Kontuak izanda:

- Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal-ordenantzaren 17.7 artikulua honako hau ezartzen duela: *“7. Adjudikataria ezin izango da aldatu, baldin eta Udaltzako berariaz jakinarazten eta baimentzen ez badu; betiere esleipena egiteko geratzen den denborarako eta haren baldintzak aldatu gabe.”*

- Ordenantzaren 16. artikulua ezartzen dituela aprobetxamenduen onuradun izateko baldintzak, eta udal zerbitzuek egiaztatu dutela Belarra andreak betetzen dituela.

- Idazkariak txosten juridikoa eman zuela 2025eko azaroaren 20an.

Azaldutakoa oinarri hartuta, **aho batez** (legez eskatzen den gehiengo osoko quoruma) ERABAKI DA:

1. Eskatutako esleipendun aldaketa baimentzea, baina esleipenari geratzen zaion aldirako bakarrik (2032ko abenduaren 31ra arte) eta haren baldintzei eutsiz.

2. Erabaki hau jakinaraztea interesatuei.

9. HERRI-LURRA OKUPATZEA LINEA ELEKTRIKOAREKIN (6. POLIGONOKO 34. PARTZELA ETA 5. POLIGONOKO 950. PARTZELA). ESPEDIENTEAREN HASIERA.

Ikusirik:

- XXX obra lizentzia izapidetzen ari dela linea elektrikoa eramateko bere jabetzako abeltzaintza bordara, Berako katastroko 5. poligonoko 46. lurzatian, Eltzaurdia inguruan (Arbutxaldea).

- Eroanbidea airekoa izanen dela 248 metro linealeko tarte batean eta 86 metro linealetan lurpean, eta lurzoru urbanizaezinetik igaroko da. Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko eta Paisaiako zuzendari nagusiak emandako baimena duela (356E/2025 Ebazpena, uztailaren 29koa).

- Eroanbidearen trazadurak 234 metro lineal zeharkatzen dituela herri-lursailetan, Berako katastroko 6. poligonoko 34. partzelan eta 5. poligonoko 950. partzelan, Sagasti eta Iturriaundiko inguruetan. Horien gainean, 830 metro koadroko zortasuna eratuko da, Udal arkitektoak egindako kalkuluaren arabera. 6 posteek hartzen duten komunalari dagokionez, guztira 6 metro karratukoa izanen da.

- Idazkariak txosten juridikoa egin zuela 2025eko azaroaren 24an.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 140. eta 172. artikuluetan eta Nafarroako toki entitateen ondasunei buruzko Erregelamenduan (280/1990 Foru Dekretua) bat datozenetan ezarritakoaren arabera,

aho batez, legez eskatzen den gehiengo osoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Hasierako onarpena ematea Berako katastroko 6. poligonoko 34. partzelan eta 5. poligonoko 950. partzelan herri-lurretako 830 metro koadroen desafektazioari, horien gainean zortasuna eratzeko, eta partzela horietako 6 metro karraturen okupazioari, 6 poste elektrikorekin.

2. Zortasuna eta okupazioa arautuko dituen administrazio-baldintzen agiria onartzea.

3. Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren.

4. Adieraztea alegaziorik ez badago, edo aurkeztutakoak ebatzi ondoren, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaiola, onets dezan.

5. Erabaki hau helaraztea interesdunari, eta adieraztea ezen, izapide hutseko egintza denez, ezin dela errekurtsorik jarri haren aurka.

10. AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: "INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK BADITU ONDORIO ERREALAK".

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez** ONETSI DA adierazpen instituzional hau:

INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK BADITU ONDORIO ERREALAK

Berriro ere, azaroaren 25ean, Nafarroako toki eta lurralde entitateek ahotsa altxatzen dugu emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak gaitzesteko. Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak eta neskak beldurrik gabe, askatasunez eta eskubideen berme osoz bizi daitezkeen.

Aurten, indarkeria-mota berrienetako, eta, aldi berean, ikusezinenetako batean jarriko dugu arreta: nesken eta emakumeen aurkako indarkeria digitala. "INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK BADITU ONDORIO ERREALAK" lelopean, azpimarratu nahi dugu Interneten eta ingurune digitaletan gertatzen denak ondorio sakon, ukigarri eta mingarriak dituela eta ezin dela alde batera utzi. Indarkeria matxista aldatu egiten da eta garaietara egokitzen da, baina gure aldarrikapenak eta gaitzespenak ukiezinak izaten jarraitzen dute.

Gaur egun, ez dago indarkeria digitalaren definizio unibertsal bakar eta uniformerik. Eboluzioan dagoen kontzeptu bat da, teknologia berrien, ingurune digitalen, sare sozialen edo Interneten bidez eragindako indarkeria matxistako jokabideak biltzen dituena. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak indarkeria digitala eraso-modu lehenetsizat hartu du berriki, eta neurri espezifikoak hartu ditu indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko.

Askatasuna, osotasun fisikoa eta morala, berdintasuna eta duintasuna bezalako oinarritzko eskubideak urratzeaz gain, indarkeria mota hori haratago doa eta emakume gazteei eta espazio publikoan parte hartzen dutenei eragiten die bereziki. Era askotara agertzen da: ziberjazarpena eta gorroto-diskurtsoak, bikotearen kontrol digitala, onartu gabeko sextinga, groominga, sextorsioa, deepfakea bidezko irudien manipulazioa edo "mendeku pornografia" delakoa.

Inpaktuak sakonak eta errealak dira: antsietatea, depresioa, isolamendua, autozentsura eta espazio digitalak uztea. Indarkeria honek emakume gazteen ahotsak isiltzen ditu eta esfera publikoan duten parte-hartzea mugatzen du, genero-desberdintasunak indartuz. Indarkeria birtualak ondorio nabariak ditu, milaka emakumeren osasunean, segurtasunean eta bizi-aukeretan eragiten dutenak.

Datuak kezkarriak dira eta arazoaren garrantzia berresten dute. NBEk adierazi du mundu mailan emakumeen %73k baino gehiagok jasan duela indarkeria Interneten, eta 18 eta 24 urte bitarteko neska gazteek jazarpen, sexu-jazarpen eta mehatxu fisikoak jasateko arrisku handia dutela. Europar Batasuneko 28 herrialdeetan, bederatzi milioi emakumek jasan dute lineako indarkeria 15 urte zituztenetik. Gainera, bostetik bat online jazarpena eta abusua zigortzeko aukera gutxi duten herrialdeetan bizi da. Era berean, indarkeria digitalaren biktima izan direnen %28k Interneteko jarduera nahita murriztea erabaki dute, eta sexu-edukia duten irudi intimoak baimenik gabe zabaltzen dituzten biktimen %90 emakumeak dira.

Horregatik, Nafarroako toki eta lurralde entitateek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Emakumeen aurkako indarkeria digitala indarkeria matxista gisa onartzea.
2. Tokiko eta lurraldeko eremuan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (polizia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, etab.), indarkeria digitaleko kasuak goiz eta eraginkortasunez antzeman eta jardun ahal izan dezaten.
3. Herritarrei, bereziki gazteei eta nerabeei, zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak sustatzea, teknologien erabilera arduratsu eta seguruari buruz, genero-ikuspegitik.
4. Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko espazio digitalak sustatzea, ikastetxeekin, komunikabideekin eta herri eragileekin elkarlanean.

DATU PERTSONALAK DISOZIATU DIRA

5. Indarkeria digitalaren biktima diren emakumeen arretarako baliabide eta protokolo espezifikoa bultzatzea.

6. Beste erakunde, sare, elkarte eta mugimendu feminista batzuekin lankidetzan aritzea, indarkeria matxista digitala desagerrarazteko bidean modu koordinatuan aurrera egiteko.

7. Indarkeria matxista digitalaren prebentzioa, detekzioa, arreta eta erreparazioa sustatzen duten tokiko politika publikoak ezartzea.

Azaroak 25 honetan, gizarte osoa gonbidatzen dugu rol aktiboa har dezan ingurune digital, benetan aske, berdintasunezko eta segurua eraikitzeko. Konpromiso kolektiboaren bidez bakarrik lortu ahal izango dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte.

11. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B30/2025 zenbakidunetik B35/2025 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 312/2025 zenbakiko ebazpenetik (2025-10-17) 346/2025 zenbakiko ebazpenera arte (2025-11-17).

12. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Patxi Castillok hitza hartu du, eta Osoko Bilkurari jakinarazi dio berriki Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakari hautatu dutela, dedikazio esklusiboarekin.

Beste aztergairik izan gabe, 21:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.